tokian tokiko
harrera-taldeak




# Loturak

Harrerarako euskal sare herritarra

# zer da Loturak?

'Loturak'-en helburua hauxe da: formazioa eta topaguneak sortzea, boluntarioak, harrerako familiak eta familia harreragileak elkar daitezen, migratzaileekiko eta errefuxiatuekiko gizarte justuagoa, kritikoagoa eta konprometituagoa eraikitzeari begira.

Inplikatutako pertsonak errefuxiatuei babesa ematen diete, egunez egun gizartean sar daitezen, eta elkarbizitza abegikorrean oinarritutako eredu bat sustatzen laguntzen dute lurraldeetatik, elkarrekiko onarpenean eta aniztasunean oinarrituta.

Harrerako sare lokalak eraikitzeko programa da Loturak, eta horretarako ezinbestekoak ditugu:









## tokian tokiko harrera-taldeak

Babesletza Komunitarioaren eredutik abiatuta, tokian tokiko talde komunitarioak bultzatzen ditugu, migratzaile eta errefuxiatuen familia eta etxeei laguntza praktikoa, babes sarea eta laguntasuna emateko.

# zer da tokian tokiko harrera-talde bat?

**Gutxienez 5 boluntarioz osatutako taldea da,** eta familia batekin edo zenbait errefuxiaturekin inplikatzen dira bertatik bertara, hemen bizitza berri bat eraikitzea posible izan dezaten. Horren barne sartzen dira:

- **Eskubideak eskuratzea:** oinarrizko zerbitzuak eskuratzeko laguntza eta orientazioa. Hala nola, eskola edo osasun-zerbitzuak, hizkuntza ikasten laguntzea, etxebizitza bilatzea, lan-merkatuan sartzea, eta abar.
- **Familia errefuxiatuekin jarduerak antolatzea:** udalerrira bisitak, txangoak, topaketak, eta abar, auzoko edo udalerriko jardueretan parte hartzea...




## ZU BEZALAKO PERTSONAK BEHAR DITUGU

Denok parte har dezakegu: koadrila bat izan gaitezke, auzo bateko bizilagunak, lankideak, edo erakunde erlijioso bateko kideak... Bizitzak eraldatzen laguntzeaz gain, auzo eta herri askotarikoagoak eta irekiagoak izan daitezen lagunduko dugu.

## TALDE BAT GARA

LOTURAK-eko talde teknikoak estuki lan egiten du tokian tokiko taldeekin urrats bakoitzean, familia errefuxiatuak hartu, babestu eta modu eraginkorrean lagundu ahal izateko.

## araba

**ALBOAN**
✆ 649 64 44 95
o.azoukay@alboan.org

## gipuzkoa

**LOIOLAETXEA ELKARTEA**
✆ 620 928 739 • ✆ 676 942 729
loturak@loiolaetxea.org

Min handia eta zauri
ireki-irekia nituen.
Hori ezin da ahaztu,
baina badaude euren
ekintzei esker egoerari
aurre egiten eta gizartera-
tzen laguntzen diguten
pertsonak. Horregatik, taldea
ezagutu nuenean, hemen
beste familia bat neukala
sentitu nuen.

## bizkaia

GETXO Y MANCOMUNIDAD DE URIBE KOSTA

**PERTSONALDE**
✆ 688 625 305
asier@pertsonalde.org

BILBAO Y RESTO DE BIZKAIA

**FUNDACIÓN ELLACURIA**
✆ 747 473 926 • ✆ 747 47 39 25
loturak@fundacionellacuria.org



PROGRAMAREN KOORDINAZIOA ETA TOKI-ERANKUDEA:

ERAKUNDE LAGUNTZAILEA:

ERREFERENTZIAKO TOKI-ERAKUNDEAK:

MIGRAZIORAKO EUSKAL ITUN SOZIALA
PACTO SOCIAL VASCO PARA LA MIGRACIÓN

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ELLACURIA FUNDAZIOA
GIZARTE GUNEA
CENTRO SOCIAL

Cáritas

pertsonalde
Acogida, cooperación
y sensibilización

LOIOLETXE JESUITAK

alboan
ONG · JESUITA · FUNDAZIOA